

Haurrak eta nerabeak erdian jartzea

**Educoren proposamenak Euskal
Hauteskundeetarako**



@educoong



@educo_ONG



educo.org

Aurkibidea

Aurkibidea	2
Sarrera	3
Haurrak eta nerabeak erdigunean	4

© Educo, 2024ko urtarrila

Baimenduta dago obra hau osorik edo zati batean erreproduzitzea, baldin eta iturria aipatzen bada eta helburu komertzialik gabe egiten bada. Dokumentu honetan erabilitako argazkiak ilustrazio gisa baizik ez dira erabili, eta ez da inola ere pentsatu behar edukia islatzen dutenik.

Dokumentu honetan landutako gaiei buruz informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan honekin: educoco@educoco.org

Sarrera

Legegintzaldia amaituta, hurrengo hauteskundeak aukera paregabea dira haurrak eta nerabeak dagokien lekuan jarri ahal izateko.

Hurrek eta nerabeek eskubideak dituzte, baina, hala ere, ezin dituzte beti erabili eskubide horiek. Pobrezia-, urritasun-, indarkeria- eta babesgabetasun-egoerak direla eta, sarritan urratzen dituzte haurren eta nerabeen eskubideak.

Erabaki politikoek, aldiz, arauak eta mekanismoak ezar ditzakete haien babesteko eta haien eskubideak bermatzeko. Konpromiso politikoak hauteskunde-programa du abiaburu, eta, horregatik, Hezkuntzak dokumentu hau aurkezten du, erabakitzeko ahalmena duten pertsonak hemen jasotako neurriak kontuan har ditzaten.

Haurrak eta nerabeak erdigunean

Eskolako jantokia

Testuingurua

Pobreziaren eta desberdintasunaren mapak agerian uzten du haur batek pobrezian erortzeko duen arriskua, neurri batean, bizi den autonomia-erkidegoaren mende dagoela, baita haren udalerrriaren eta auzoaren mende ere.

Euskadin, EINen 2022ko Bizi Baldintzei buruzko azken Inkestaren arabera, haur-pobreziaren arrisku-tasa % 16,6koa da, Estatuko tasarik baxuena. Alabaina, 2012-2014 eta 2019-2021 urteen artean izan duen bilakaerari erreparatuta, % 1,2ko igoera izan da, eta horrek erakusten du alferrik galdu dela oparoaldia haurren pobrezia murrizteko. Era berean, 0-17 urtekoen artean, gabezia material eta sozial larriaren tasa % 6,5 da Euskadin.

Haur bat bizi den ingurunea lagungarria izan daiteke desberdinkeria murrizteko, pobrezia-egoeren ondorioak arintzeko eta ekitatea eta aukera-berdintasuna sustatzeko. Horretarako, administrazio publikoek bultzatu behar dituzte era askotako bizitegi- eta eskola-inguruneak, bereizketarik gabeak, eta behar adina laguntza eman behar diete zaugarritasun-egoeran dauden familiei.

Ilido horretan, ikastetxeek eta eskola-jantokiek eragin zuzena dute haurren ongizatean, eta bermea dira haurrak elikatzeko; gainera, palanka-neurri bat dira hezkuntza-ekitatea eta eskola goiz utz ez dezaten lortzeko.

EAEen lehen hezkuntzako ikastetxe guztiek dute eskola-jantokia, eta ikasleen % 78k erabiltzen dute. Autonomia-erkidego bakoitzeko batez besteko errenta kontuan hartzen badugu, korrelazio positiboa agertzen da errentaren eta laguntzaren artean (INE, 2021), hau da, baliabide gutxien duten biztanleak dira gutxien joaten direnak.

Zerbitzu horren prezioa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 4,6 eurokoa da egunean, eta horixe da, izan ere, familiek zerbitzua eskuratzeko duten oztopo nagusia, nahiz eta burokrasia nahaspilatsuak eta ezjakintasunak ere eragina izan.

Proposamenak

- Pobrezia-arriskuan dauden familiei **eskola-jantokiko zerbitzua doan bermatzea**. Eta, horretarako:
 - Tramitazioa eta haren ebazpena azkartzea, familiek beren egoeraren berri izan dezaten ikasturtea hasi baino lehen. Funtsezkoa da berandu ez ordaintzea —horrek familiak behartzen baititu laguntzak finantzatzera—, eta beken izapideak erraztea eta automatikoki berritzea.
 - Mekanismoak jartzea, pobrezia-arriskuan dauden familiek erraz izan dezaten eskola-jantokiko beken eta laguntzen berri eta eskura ditzaten.
 - Administrazio publikoaren zorrek eta ordainketa-gabeziek ez dute laguntzetatik bazter geratzeko arrazoi izan behar, horrek arriskuan dauden haurrak zigortzen baititu.

Educoren txosten honetan oinarritutako proposamenak: [El comedor escolar en el País Vasco Eskola-jantokia Euskadin](#)

- Aurrera egitea jantoki unibertsala eta doakoa lortzeko. Eskola-jantokia eskubide subjektibo gisa onartzea eta, beraz, baldintzak betetzen dituzten ikasleek jantoki-beka jasotzea.
- **Zerbitzuaren kalitatea**. Behar bezala ziurtatu behar da eskola-jantoki guztietan elikadura osasungarria emango dela, haurren beharretara egokitua, kudeaketa-mota edozein dela ere (zuzena edo azpikontratatua). Horretarako:
 - Sari komunikatzea familiekin, zerbitzua baloratzeko eta hobetzeko. Mekanismoak ezartzea plastikoen erabilera murrizteko, hondakinak birziklatzeko eta murrizteko.
 - Aliantzak proposatzea udalerriko eragileekin, hondakinak kudeatzeko, elikagaien soberakina aprobetxatzeko eta hondakinak murrizteko.
- **Eguerdiko espazioa**. Behar bezala bermatzea begirale-taldeek gatazkak konpontzeko eta elkarrekin bizitzeko prestakuntza izango dutela, ikastetxeko bizikidetzaren planarekin, ongizateko koordinatzailearekin eta ikastetxeko irakasle-taldearekin bat etorrita. Premia bereziak dituzten haurrak eta nerabeak zaintzea, jantokitik kanpo gera ez daitezen eta eguerdiko jardueraz goza dezaten.
- **Azpiegiturak eta ekipoak**. Eskola-jantokirako azpiegituren egoera identifikatzea, eta eraikitze-, berregokitze-, handitze-lanen eta bestelako beharren azterketa egitea. Plan hori gauzatzea obrak zuzenean gauzatuz edo ardura duten gobernuko administrazioen eraginaren bidez.

Babesa

Testuingurua

Gure herrialdean, 2021ean, haur edo nerabe bat biktima gisa zuten salaketek % 30,96ko igoera izan zuten aurreko urtearekin alderatuta. ANAR Fundazioaren datuen arabera, **sexu-abusuen hazkunde-tasa % 300,4koa izan zen, hau da, 4 aldiz biderkatu ziren 2008tik.** (Mini et al., 2022).

Parekoen arteko indarkeriaren arazoari dagokionez, ez dago datu ofizialik. Alabaina, azterlan batzuen arabera, estatu osoko prebalentzia ikusita, haurren % 23,57k jaso du noizbait indarkeria (Gázquez, Cangas, Pérez, Lucas, 2009). Horrez gain, kezkatzekoa da gora egin dutela ingurune digitaleko delituek, ez bakarrik parekoen artean izaten direnek —ziberjazarpenak, kasu—, baita delituen tipologiek ere, hala nola sexting-ak edo grooming-ak.

Gure herrialdean, urrats nabarmenak egin ziren ahalik eta mekanismo gehien ezartzeko indarkeriaren biktima diren haurren prebentziorako, detekzio goiztiarrerako eta arretarako, **haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko 8/2021 Lege Organikoa (LOPVI) onartu baitzen.** Legeak aitortzen du haurren eta nerabeen aurkako indarkeria oso hedatuta dagoela, eta kausa ugari eta era askotako testuingurutan izaten diren ondorioak dituela. Gaur egun, jakin badakigu, hasiera batean, haur eta nerabeentzat segurutzat jotzen ditugun espazioetan (eskolan edo familia-ingurunean, esaterako) izaten direla, hain zuzen, indarkeria-kasu gehienak.

Hortaz, esparru berriak arreta jartzen du haur eta nerabeen ingurune hurbilean erantzukizunak dituzten profesionalengan, eta sentsibilizazio eta trebakuntza gehiago eskatzen du indarkeriaren biktimen prebentziorako, detekzio goiztiarrerako, arretarako eta erreparaziorako. Era berean, familietan jartzen du arreta, eta familiekiko sentsibilizazio eta trebakuntza gehiago eskatzen du, indarkeria-mota guztiekiko zero tolerantzia lortu arte. LOPVIren arabera, autonomia-erkidegoetako administrazioek arduratu behar dute legeak sartzten dituen neurrien ezarpena bultzatzeaz.

Proposamenak

- **Haur eta nerabeei buruzko EAEko 2/2024 Legearen ezarpena bultzatzea**, eta politika publikoak garatzea, behar diren baliabideekin hornituak –bai ekonomiari dagokionez, bai giza arloari dagokionez–, eskubide horiek betetzen direla bermatzeko.
- Herritarrak **sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea**, haurren eta nerabeen kontrako indarkeria-mota guztiekiko zero tolerantzia lortzeko.
- **Prestakuntza-programak ematea** haurrekin harremanetan dauden profesionalei, indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra hobetzeko.
- **Haurren parte-hartzea bultzatzea**, giltza-tresna gisa hartuta indarkeriaren prebentzioa lantzeko eta ingurune seguruak sortzeko.
- **Datuak biltzeko sistemak hobetzea**, indarkeriaren arazoaren benetako irismena zein den jakiteko eta, gero, arazo horri amaiera emateko politika egokiak diseinatzeko.
- **Ongizateko eta babeseko koordinatzailearen figura bultzatzea ikastetxeetan, eta babeseko ordezkariaren figura kirolaren eta aisialdiaren esparruan**. Autonomia-erkidegoko legediak abian jarri behar du haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren funtsezko mekanismo hori, LOPIVIn agertzen dena. Eta figura horri eman behar dizkio prestakuntza osoa eta jarraitua, profila, aurrekontua, administrazioen laguntza eta dagozkion eginkizunak betetzeko behar duen ordutegia.
- Haurrak babesteko antolakuntzako estandarrak ezar daitezzen sustatzea administrazioetan, ikastetxeetan eta haur eta nerabeen erakundeetan.

Hezkuntza 0 eta 3 urte artean

Testuingurua

Lehen urteetako hezkuntza eta bizitza-kalitatea zaintzea lagungarria izan daitezke pobrezia- eta bazterkeriaren zirkuluak hausteko, eragin ona eta iraunkorra baitu haurren eta haien familien garapenean eta ongizatean, eta, beraz, gizartean.

3 urte bete baino lehen kalitatezko hezkuntza-programetara joaten diren haurrek emaitza hobek izaten dituzte ondorengo hezkuntza-etapetan, errepikapen-tasa txikiagoa eta iraute-tasa handiagoa hezkuntza-sisteman. Gainera, zerbitzu hori funtsezkoa da

lana, familia-bizitza eta bizitza pribatua uztartzeko, eta, bereziki, emakumeak lan-merkatuan errazago sar daitezzen lortzeko.

Haur guztiek dute eskubidea aukera berberak izateko, eta familia guztiek behar dituzte laguntzak haurrak hazteko. Horregatik, premiazkoa da lan egitea plaza publikoen eskuragarritasuna eta, orobat, kalitatezko hezkuntza eta zaintzarako sarbide unibertsala eta doakoa bermatzeko.

2023/2024 ikasturteaz geroztik, euskal autonomia-erkidegoak doakotasuna ezarri zuen haur-hezkuntzako lehen zikloan, Haurreskolak partzuergoaren sarean dauden ikastetxe publikoentzat, eta horrek ikasleen % 54,8 hartzen ditu barne.

Etaparen horretako eskolatze-tasa % 56koa da EAEn.

Proposamenak

- **Plaza publikoen kopurua handitzea 0 urtetik 3ra arteko hezkuntzan.** EAEn eskolatze-tasa altuak izan arren, familien eskaria handiagoa da eskaintza baino¹.
- **0 eta 3 urte bitarteko hezkuntzan doako plaza bat bermatzea** egoera ahulean dauden familia guztientzat.
- **Plaza publikoak eskuratzeko, irizpideak bermatzea zaugarritasun-egoera ekonomiko eta sozialean dauden familiei lehentasuna emateko.**
- **Eskola-jantokiko zerbitzua doakoa izan dadila aztertzea,** familia zaugarrientzat.
- **Ongizateko eta babeseko koordinatzailearen figura ezartzea,** etapa honetako ezaugarri berezietara egokituta.

¹ "EAEko 300 familia inguru plazarik gabe geratu dira Haurreskolak sare publikoan datorren ikasturterako. Aurreko azaroan zerbitzua doakoa izango zela iragarri zenetik, eskaerak izugarri egin zuten gora hiru lurraldeetan. Gehienbat Bizkaian, eta, gero, Gipuzkoan eta Araban." [Casi 300 familias de Euskadi se quedan fuera del Consorcio de Haurreskolak para el próximo curso | El Correo](#)

Larrialdietako Hezkuntza (EeE)

Testuingurua

Gaur egun, eskolatzeko adinean dauden 224 milioi haur bizi dira krisi humanitarioek jota dauden lekuetan. Kopuru hori esponentzialki igo da; izan ere, 2016an 75 milioi zeuden; hau da, % 196ko igoera izan da 6 urte eskasetan (ECW, 2022).

Horietatik 78.2 milioi eskolatik kanpo daude, eta 120 milioi inguru, ikastetxeetan egonda ere, ez dira iristen matematikako edo irakurketako gutxieneko ezagutza-mailara. Egoera are larriagoa da krisi luzeetan murgilduta bizi diren haurrentzat eta nerabeentzat, izan ere, gehienek ez dute ezagutzen krisia ez den beste egoerarik. Herrialde horietan bizi dira eskolara joaten ez diren haurren eta nerabeen % 84. Besteak beste, Afganistan, Hego Sudan, Mali eta Pakistan herrialdeak dira, haietan belaunaldi batzuek ez dute bestelakorik ezagutzen, indarkeria eta errepikatutako krisialdiak ez badira.

EAEko administrazioa estatuko bigarrena da, Valentziako Erkidegoaren atzetik, Larrialdietako Hezkuntzaren finantziazioan, baina nabarmena da 2021eko funtsek behera egin dutela. Hala ere, Larrialdietako Hezkuntzarekin konprometitutako udal gehien dituen erkidegoa da, esaterako, Bilbo, Donostia, Zarautz eta Errenteria.

Proposamenak

- **Eskubideen eta ongizatearen ikuspegia sustatzea larrialdietako hezkuntzan**
- **Larrialdietako hezkuntzaren posizioa igotzea eta maila politikoa zeharkatuko duen gai bihurtzea, nola maila exekutiboan, hala EAEko legegintza-mailan.**
- **Larrialdietako hezkuntzan inbertsioa handitzea.**
 - %10 ekintza humanitariorako, eta, kopuru horretatik, %10 larrialdietako hezkuntzarako.
 - Autonomia- eta toki-administrazio gehiagok larrialdietako hezkuntza sustatu eta horretan inbertitu dezaten sustatzea.